

# HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2022-2026

013432 CIFP Meka LHII

2022-2026 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onspena duela aitortzen dut.

## EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

<p>Justifikazioa</p>	<p>Meka LHII Elgoibar Udalerrian kokatzen da, Debabarrena eskualdean. Gaur egun, 11.492 biztanle ditu Elgoibarrek. Hauetatik %22,03, 65 urtetik gorako biztanlegoa da. Gainera, Espainiar Estatutik kanpoko biztanleria 1.097 biztanlekoa da * eta besteak beste, Marokotik, Errumaniatik, Hego Amerikatik, Pakistandik eta Txinatik iritsitakoak dira. Halaber, aipatzekoa da 60. hamarkadaren inguruan Estatuko beste lurraldeetatik herritar asko etorri izana, besteak beste Galizia, Burgos, Guadalajara, Ciudad Real eta Andaluziatik.</p> <p>Elgoibarko jarduera ekonomiko nagusia, industria da, jarduera ekonomiko guztiaren %58,7 suposatzen duenlarik*.</p> <p>Elgoibar, udalerrri euskalduna da, euskaldunen proportzioa %62,27koa delarik. Euskaldun alfabetatuen proportzioa berriz, %53,02koa da*. Euskararen erabilerrari dagokionez, Sozioling&amp;uuml;istika Klusterrak 2017an egindako lanari erreparatu gero, Elgoibarren Euskararen kale erabilera %35,9koa da. Aldiz, Gaztelaren kale erabilera, %61,9 koa da.</p> <p>Ikastetxeari dagokionez, Lanbide Heziketako Zikloak eskaintzen dituen ikastetxe bat da. Guztira, Erdi Mailako 7 ziklo, Goi Mailako 6 ziklo eta Eskaintza partzialeko 4 ziklo eskaintzen dira bertan. Batz bestea, 600 ikasle inguru aritzen dira bertan, 65 irakaslerekin batera.</p> <p>Ikasleak inguruko herrietatik etortzen dira: Mutriku, Ondarroa, Zarautz, Orrio, Eibar, Ermua, Azpeitia, Azkoitia, Mendaro, Soraluzetik. Ikasleen jatorrizko beste herri batzuk hauek lirateke: Durango, Donostia, Berriz, Abadi&amp;ntilde;o, Zumarraga, Zaldibar, Arrasate.</p> <p>Ikasle hauetako askok, 2 urtetako ibilbidea egiten dute ikastetxean eta ondoren, enpresetan lan praktikak egiten dituzte. Beste hainbatek, ikastetxean bertan edota beste ikastetxeren batean, ikasketekin jarraitzea erabakitzen dute, izan Goi Mailako ziklo batean, izan Unibertsitateko ikasketak gauzatuz.</p> <p>Ikasleen adinari dagokionez, 16 eta 19 urte arteko ikasleak dira gehien bat, nahiz eta 50 urteko ikasleak ere aurki daitezkeen.</p> <p>Irakaslegoari dagokionez klustroa osatzen duten irakasleen %100a Euskalduna dela esan dezakegu. Klustroak, mintegi bilerak, koordinazio bilerak Euskaraz izaten dira ahozkoari dagokionez eta akta guztiak ere Euskara hutsean jasotzen dira.</p> <p>Pasa den ikasturtean Zuzendaritza Talde berria osatu izanak, asko lagundu du Normalizazioan. Zuzendaritza Taldea osatzen duten irakasle guztiak dira Euskaldunak eta Euskararen aldeko jarrera dutenak.</p> <p>Ikaslegoari dagokionez, Brankaren emaitzek erabilera maila handiko ikastetxea dela esaten badigu ere, ikasleen artean gertatzen diren elkarrizketa ez formalek gehiengo zabal bat. Gaztelerez gertatzen da. Beraz, datozen lau urteetarako erronka nagusietako batek, ikasleen arteko komunikazioan, Euskeraren presentzia areagotzek izan beharko luke.</p> <p>Datozen lau urteetarako beraz, Meka LHIIri, orain arte lortutakoari eutsi eta egoera egonkortzeko erabakiak hartzea dagokio.</p> <p>Horretarako, Meka LHIIk, pasa den Urrian hasita, hausnarketa prozesu bati ekin dio non jarraian aurkeztzen diren helburu eta giltzarrien inguruan adostasun zabal bat lortu den: &amp;quot;MEKA Lanbide Eskolak ikastetxe euskalduna izan nahi du, eta lan-mundura egokitutako ikasle kualifikatuak hezteko du helburu. Horren barruan kokatzen dugu ikasleen artean hizkuntza aniztasunarekiko begirunea sustatzea, euskaraz hitz egiteko komunikazio gaitasuna bermatzea eta hiztun proaktiboak izateko tresnak eskaintzea&amp;quot;.</p> <p>Azkenik, azpimarratzekoa da Ulibarri programan egoteak zentroari Hizkuntza Normalizaziorako bidean aurrera pausuak egin ahal izateko ezinbestekoak diren baliabideak eta motibazioa eskaintzen dizkiola.</p> <p>*EUSTAT: <a href="http://es.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/elgoibar.html">http://es.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/elgoibar.html</a></p>
<p>Eremu Instituzionala</p>	<p>Arestian aipatu bezala, Meka Lanbide Eskola, Euskaraz bizi den ikastetxe bat bezala defini dezakegu. Hemendik aurrera, egoera hau indartu eta atzera bueltarik izan ez dezan lortzeko izan beharko luke erronka nagusi.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Gaur egungo Euskararen presentziari eusteko neurriak hartzea, egoera egonkorta eta atzera pausorik ez emateko.</p>
<p>Eskola kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera</p>	<p>Ikasle batzordea eratzeko beharra agertu da hausnarketa prozesuan zehar. Ikasleek protagonista izan behar dute. Beharrak beraiek identifikatu gero errazagoa izango da inplikatu eta parte hartzea.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Meka Lanbide Eskolak, kualifikatutako ikasleak lortu nahi ditu Euskarari dagokionez. Bide horretan, ebaluazio sistema propioa garatzeko aukerak aztertzen ari da: zikloa amaitu ondoren, ikasleen hizkuntza gaitasuna ziurtatzeko, kanpo ebaluatzaile batekin elkarlanean, gaitasun frogak egingo bagenitu?</p>
<p>Gelaz kanpoko jarduerak</p>	<p>Herriko eragile ezberdinekin harremanak mantendu eta elkarrekin gauzak egitea aberasgarria litzateke.</p>
<p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p>	<p>Sailburuordetza zertan ari garen berri eman eta konplizitateak bilatu.</p>
<p>Bestelako tresnak</p>	<p></p>
<p>Eremuen lehenetsuen inguruko hausnarketa</p>	<p>Erronka nagusiak gaur egungo egoerari eusteko neurriak hartu eta atzera pausorik ez egitea lortzea izango lirateke.</p>

## 4 URTEKO PROIEKTUA

## 1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDU ETA ERABILERA KOHERENTEAK

### 1.1. Ikastetxearen antolamendua

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Barne dokumentazioari dagokionez erabat Euskaraz izatea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak	Mintegietako, Zuzendaritzako, Batzorde teknikoetako aktak %100 Euskaraz.		✓	✓	✓	✓
Zuzendaritza taldeko kideen artean aldaketak egin behar balira, kide berrien Euskara gaitasuna bermatzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Zuzendaritza taldeko kideek B2 edo baliokidea den ziurtagiria izatea.	✓	✓	✓	✓

### 1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Herri ekimenetik sortutako eta Euskaingintzarekin zerikusia duten ekintzak babestu eta ahal den neurrian parte hartzea.	Zuzendaritza, HNAT	null	Ekimenetan parte hartu BAI/EZ	Balorazio orriak ekimenen ondoren.	✗	✗	✗	✗
Hizkuntza Normalizazio Proiektuak ikastetxearen Plan Estrategiko orokorrean txertaturik jarraitzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Mantentze jarduerak		Plan Estrategikoan txertatu dela ziurtatzea., Plan Estrategikoa klustroan aurkezten denean, HNP ere aurkeztea.	✓	✓	✓	✓

### 1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Enpresa, hornitzaile, administrazio eta beste ikastetxeekiko harremanak Euskaraz izatea eta ezin denean, helebenan.	Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT, HN Batzordea	Mantentze jarduerak			✓	✓	✓	✓

### 1.4. Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitalean

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denbormalizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Eremu informatikoan Euskararen presentzia bermatzea.		Antolaketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Ikastetxeko ekipo informatikoen %100 interfazea Euskaraz.		✓	✓	✗	✗

## 2. ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

### 2.1 Ikasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikasle batzordea sortzea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Batzordean parte hartzen duten ikasle kopurua., Batzordearen bilera maiztasuna.	Batzordea sortu ala ez.	✓	✓	✓	✓
Euskal hiztun komunitatearen ezaugarriez hausnartzea.	HNAT	Hausnarketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Parte hartzeari dagokionez %60		✓	✓	✓	✓
Praktikak Euskaraz egiteko aukera bermatzea eta horretara animatzea.	Zuzendaritza, HNAT, Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Sentiberatze-motibazio jarduerak		Balorazioa 7 edo handiagoa.	✓	✓	✓	✓

## 2.2 Ikasleak: komunikaziorako konpetentzia.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Eskola irratia, podcast, Barne informatzen... eskolako egunerokotasuna kontatuko duen baliabideren bat martxan jarri. Ikasle batzordearen ardura izan dadila.	HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak		Baliabidea sortu ala ez.	✗	✗	✗	✗

## 2.3 Ikasleak: erabilera.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Euskararen erabilera areagotzea eremu formal eta ez formalean.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak	Brankarekin lotutako datuak aurreko 4 urtekoarekiko hobetzea.		✓	✓	✓	✓

## 2.4 Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikastetxean, Euskarazko kultur produkzioaren presentzia bermatzea.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Tokiko aldizkarien presentzia., Euskarazko musikaren presentzia ikasleen sarrera irteeratan.	✓	✓	✓	✓

## 2.5 Irakasleak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Zuzendaritza taldeko jardunean Euskararen erabilerari eustea, bai ahozko zein idatzizko komunikazioan.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak		Klaustroetako aurkezpenak Euskaraz egiten direla neurtzea., Akta eta deialdiak Euskara hutsean egiten direla ziurtatzea.	✓	✓	✓	✓
Irakasleei Euskarazko ikas materiala erabitzeko aukera ezagutzera ematea.	HNAT	Prestakuntza edo trebatze jarduerak		Asebetetzearen balorazioa 6.	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Irakasleen ezagutzaren kalitatea hobetzea.	HN Batzordea	Prestakuntza edo trebatze jarduerak	Urtero irakasle 1 Iralera.		✓	✓	✓	✓
Erabilera mailari eustea.	HN Batzordea	Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	Brankarekin lotutakoak, %80koa.		✓	✓	✓	✓

## 2.6 Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ahozko erabilera bultzatzea zerbitzuetako langile guztiek.	HN Batzordea	Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak			✓	✓	✓	✓

## 3. FAMILIAK ETA KOMUNITATEA

### 3.1. Familiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Gurasoekiko harremanean, ikastetxea osatzen duten langile ezberdinek, lehen aukera bezala Euskara erabiltzea.	Zuzendaritza, Idazkaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak			✓	✓	✓	✓

### 3.2. Komunitatea, eskolaz kanpoko jarduerak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Elgoibarko Udalarekin harremana sendotu.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Mantentze jarduerak		Bizitzarako prestakuntza Euskaraz hitzarmena urtero sinatzea.	✓	✓	✓	✓
Euskararen aldeko eragileekin harreman berriak sortu eta lehendik datozenei eutsi eta sendotu.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak			✓	✓	✓	✓